


# Prentsa oharra

## Nota de prensa



Donostia Gazteriak egiten duen "Martx Up!" programaren barruan, "Mapandreak" programa sortu da, hiriko kale-izendegian emakumeak ikusarazteko.

Cristina Lagé Aniztasun, Inklusio eta Berdintasun zinegotziak nabarmendu du "emakumeek hiriaren historian eta egunerokoan izan duten eta duten papera, nahiz eta gure kale eta plazetan duten presentzia oraindik ere oso eskasa izan. Mapandreak balioa eman nahi die emakumeei, eta beren presentzia nabarmendu kale, plaza eta parkeetan. Helburua da Donostia ere emakumeena dela aldarrikatzea, eta gogoan izatea berdintasunaren bidean aurrera egiten jarraitu behar dugula, hiriaren historiari hainbeste ekarpen egin dioten emakumeen izen propio gehiago ikusaraziz. "

Mapandreak: mapa ilustratu bat da, eta emakumea presente dagoen espazio publikoak, eskulturak eta muralak biltzen ditu. Hiriko auzo desberdinetan, 63 esparru daude seinalatzatuta, emakumeen izenak ageri dituztela: Clara Campoamor, Elbira Zipitria, Menchu Gal, Maritxu Guler, Katalina Eleizegi. Bai eta hainbat kolektiboren izenak ere, hala nola: emakume batelariak, Tabakalerako zigarro-egileak, latsariak nahiz andereñoak. 500 ale argitaratu dira, euskaraz eta gaztelaniaz, eta hiriko leku estrategikoetan banatuko dira.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



Mapandreok-en ideia eta diseinua Ane Chuecarena da eta ilustrazioak Laura Matesanz de la Mazak egin ditu

### **Proiektuaren aurrekariak eta hasiera**

Genero-ikuspegia duen hirigintza hiriaren adierazgarritasunarekin lotuta dago. Adierazgarritasun hori komunitate osoaren ikusgarritasun erreala eta sinbolikoa aitortzen direnean lortuko da, hau da, hirian kolektibo anitz baten presentzia dagoenean. Zentzu horretan, funtsezkoak dira memoria, gizarte eta kultur ondarea berdintasunean baloratzea eta pertsonen hiriko erabakietan parte hartzea. Egungo edo iraganeko gizartea osatzen duten edo osatu duten pertsonen merezi duten adierazgarritasuna nabarmenduta, dagokien tokia ematen zaie imajinario kolektiboan.

Beraz, hiri bateko kale-izendegia eta memoriaren garrantzia nabarmendu beharreko alderdiak dira. Kaleek, esparru publikoek, arte-adierazpenek, eskulturek... memoria sortzen dute, eta hori transmititzen zaie hurrengo belaunaldiei.

Testuinguru honetan, Donostiako Udaleko Berdintasun Bulegoak, «Emakumeon Donostia» izeneko mapa digitala plazaratu zuen 2019. urtean, Emakumea eta Hiria Foroarekin, Emakumeen Etxea elkartearekin eta EHUko Emakume eta Gizonen berdintasunaren gaineko Masterrarekin elkarlanean.

Mapandreak proiektua lan horren jarraipena da, mapa digital horren osagarri gisa, formatu fisikoan, funtzionatzeko sortua, bi lanen artean ikusgarritasun handiagoa lortzearren. Proiektuaren lehen urrats honen emaitza Donostiako emakumeen izenak dituzten kale zein esparruen mapa ilustratu hau izan da.